

ZINEMA. Betiko hotz fama astindu, eta 'glamour'-a indartu nahi du jaialdiko zuzendariak

Robert Marshallen 'Chicago' filmak jarriko du abian, gaur, 53. Berlinale

Yimou, Lee, Chabrol, Soderberg, Chereau eta Parkerren filmak izango dira lehiaketan

Agentziak | BERLIN

Cannes eta Veneziako zinemaldien aldean, hotzagoa izatea leporatu izan diote beti Berlingo-ari, baina aurten, 53. ekitaldian, *glamour*-ari aurreko urteetan baino indar handiagoa emateko asmo tinkoa agertu du Dieter Kosslick-ek, Berlinaleko zuzendariak. Horren erakusgarri argia da jaialdiak aurten hartuko dituen izarren zerrenda. Richard Gere, Catherine Zeta-Jones, George Clooney, Nicole Kidman, Nicolas Cage eta Kevin Spacey dira, besteak beste, gaurtik hilaren 16ra bitartean Berlinera joatekoak.

Sail ofizialean Urrezko Hartzaren bila lehiatuko diren zinemagileen zerrenda ere ez da makala: Claude Chabrol —*La fleur du mal* filmarekin—, Zhang Yimou —*Ying Xiong*—, Steven Soderberg —*Solaris*—, Patrice Chereau —*Petites Coupures*—, Spike Jonze —*Adaptation*—, Alan Parker —*The life of David Gale*—, Michael Winterbottom —*In this world*— eta Spike Lee —*25 hours*—, besteak beste. Guztira 22 film lehiatuko dira sariaren bila. Lehiaketatik kanpoko gonbidatuen artean ere zuzendari ezagunak izango dira, Martin Scorsese eta Oliver Stone, esate baterako.

Soderberg-en filmean lan egiteaz gain, berak zuzendutako aurreneko filma ere aurkeztuko du aurten Berlinen George



JOCKEL FINCK / AP
Tapiz gorria prest dago, Berlinale Palast-eko atarian, Berlinalek bilduko dituen izarrei harrera egiteko.

Clooney aktoreak: *Confessions of a dangerous mind*.

Jaialdia Rob Marshall-en *Chicago*-k jarriko du abian, gaur, lehiaketatik kanpo. Marshallen filmak bat egingo du, itxura batean behintzat, jaialdiak aurten bere egin duen leloarekin: «Tolerantziarantz».

Iraki egindako mehatxua gogoan

Nahiz eta maila handiko jende ezagunaren parte-hartzea hitzartua izan, Kosslickek badaki

IZARRAK

Gere, Zeta-Jones, Cage, Clooney eta Spacey dira egunotan Berlinen izango diren aktoreetako batzuk

AEBek Iraki egindako mehatxuak arazoak sor ditzakeela, izar ezagun asko Berlinera joateko Ozeano Atlantikoa zeharkatzeko beldur izan daitezke-

lako. Horri aurre egiteko inolako planik ez duela prestatu adierazi du Kosslickek, eta Zinemaldia egiten den egunetan, Berlin gaiaren inguruko eztabaidarako gune izatea espero duela.

Datorren asteko larunbatean, otsailaren 15ean, Iraki erasotzearen aurkako manifestazioa egingo da Berlinen, hainbat sindikatu, alderdi, elkarte erlijioso eta intelektual ezker-tiarrek deituta, eta milioi bat lagun biltzea espero dutela adierazi dute antolatzaileek.

AZPIEGITURAK

Iruñeko Udalak eta Baluarte auditorioaren erabilera zehazteko hitzarmena sinatu dute

Iruñeko Udalak eta Baluarte Elkarteak Nafarroako Kongresu Jauregi eta Auditorioaren erabilera zehazteko hitzarmena sinatu zuten atzo. Akordioa betetzeko Kudeaketa Batzordea eratzea erabaki zuten. Iruñeko Udalak hilabeteetan bitan erabili ahaliko du Baluarte doan, eta beste bi egunotan tarifaren erdia ordainduz. Halaber, Udalak hiru hilabete lehenago zehaztu beharko ditu erabilera datak.

ARTEA

Matisseren 20 litografia eta eskuizkribu bateko orrialdeak ostu dituzte Greziako museo batetik

Henri Matisse artistaren 20 litografia eta eskuizkribu bateko 18 orrialde ostu dituzte Frantziako Greziako Mytiline uharteko Teriade museo-tik. Museoak atzo eman zuen lapurretaren berri, baina litekeena da lapurretaren aurrerago gertatu izana, hilaren 20an egin baitzen Matisseren obraren inguruko azken kontrola, museoeko zuzendari Constantin Maniatopoulou-sek aditzera eman duenez. Matissek *Jazz* liburu ilustraturako egindako lanak dira ostutakoak.

Milioi bat artelan itzultzeko eskaera egin du Txinak

Mundu osoko museoetan banaturik dauden Txinako artelanak eta ondasunak jatorrira itzultzeko eskaera egin du hango Gobernuak. Azken 200 urteetan abenturazale frantziarrek, ipar amerikarrek nahiz japoniarrek oso diru gutxiren truke eta askotan legez kanpo, Txinako artelan garrantzitsuak eta balio historiko handiko gauzak eskuratu dituztela dio. Besteak beste, Louvre (Paris), El Prado (Madril) eta Metropolitan (New York) museoetan dauden gauzak itzultzeko eskatu dute.

Koldo Almandozen film laburrak ikusteko eta harekin solasteko aukera izango da, gaur, Donostiako Larrotxenen

Ainhoa Oiarzabal | DONOSTIA

Koldo Almandoz (Donostia, 1973) zinemagilearen film labur guztiak (lau) ikusteko aukera eskainiko du, gaur, iluntzeko 20:00etatik aurrera Donostiako Larrotxene kultur etxeak. Ikusteko aukera ez ezik, filmei buruz hitz egiteko aukera ere eskainiko du kultur etxeak. Izan ere, emanaldia amaitu eta gero, zinemagilearekin bere lanari buruz solasteko parada izango du hara joaten den edonork. Berriketan. Film laburren proiektzioa eta solasaldia ekitaldiaren neguko programazioaren barnean antolatu dute gaurko emanaldia.

Mon petite, mon amour (1996), *Razielen itzulera* (1997), *A dar ba kar* (2000) eta *Belarra* (2002) filmak eskainiko ditu zinemagile donostiarrak. «Laurek ongi islatzen dute film laburrei buruz pentsatzen dudana», adierazi zuen atzo Almandozek, eta jarraitu zuen: «Lau filmak desafioak dira, hau da, ez dut txiste edo anekdota bat film bihurtu. Lauretan arriskatu egin dut, eta ondorioz, batzuek besteek baino hobeto funtzionatu dute». *Razielen itzulera*-k eta *Belarra*-k oso harrera ona izan dute zinema jaialdietan. Lehena Donostiako Zinemaldiaren Zabaltegi sailean aurkeztu zuen, eta azkena, berrix,

Espainiako Alcala de Henares jaialdirako hautatu berri dute. Halaber, Roterdamgo jaialdian (Holanda) eta Zinebin (Bilbo) ere aurkeztu du iaz estreinatu zuen film laburra.

Montxo Armendariz eta Juanan Urkola ere bai

Berriketan ekitaldiaren bigarren emanaldia martxoaren 27an izango da. Montxo Armendariz (Oleta, 1949) zinemagileak 80ko hamarkadaren hasieran egin zituen film laburrak eskainiko dituzte orduan: *La danza de lo gracioso* (1979), *Paisaje* (1980), *La ribera de Navarra* (1981) eta *Carboneros de Navarra* (1981).

IRAGARKI MERKEAK 0943 300 222

